

UMIAK AUTÓRTUTEN

ETA JAUNARTUTEN

4TU
602



H-44940

R-45941

ATV
21602

UMIAK

AUTORTUTEN ETA JAUNARTUTEN

EUZKERAZ TA ERDERAZ IDATZI DAU

ARIANDIAGA'TAR IMANOL

Miren-Bijotzeko Seme Belgundari Abeak

Bigarren Irañkaldija



BILBAO'N

Elexpuru Anaya'en Irañkolan

1912

IMPRIMATUR:

Antonius Naval, C. M. F., Subd. Gen.

IMPRIMATUR:

Joseph, Ep. Victoriensis.

Victoriæ, 29 Martii 1912

UARA

Batek baño geyagok umientzako Euzkera gatxegijaz, itz bañiz atondubaz idatzi dodala edo-dasakie. Uste dot sei saspi urtedun mořoskotxubak, adin onetakuentzat idatzi dot neure idaztiñotxu au, eztakijela Euzkera garbirik, ezta eřdera zantařik: ikasi bial ba-dabe, ondo ta garbi itz-egiten bekaskie.

Itxik asko bañija dala. Baña be gauř zařak diranak, atzo edo baten bañijak ixan ziran: gauř bañijak diranak, bigař edo etzi zařak ixan daikez.

Kurutze santiaren, Aña guria ta beste otoi batzuk Mogel eta Urkitza'ťař Andoni'k euzkeraztutako *Kristiñabaren Jakinbidia*'tik arťu dodaz; baña iñok umiai euzkera garbiz irakatsi gura ba-dautsoez, uařetan garbijago imiñi dodaz.

UMIAK

AUTOŖTUTEN ETA JAUNARTUTEN

I ATZALBURUBA

Noiz umiak autoŖtu ta jaunartu biar daben

1.—Doibatzak aginduba

Zeintzuk urtietan umiak autoŖtu ta jaunartu biar daben Laterano'ko laugarren Batzar nagosijak erabaki eban itz aunekaz: *gixa-eme kistaŖ orok adikuntza urtietara eldu-ondoren, obenak bakaŖik eta zintzoro autoŖtu begikioz urtian bein beintzat norberak bere jauparijari, eta ezaŖiko yakon oben-nekia beteten gogoz ekin beike; baŖa be Berbizkaldijan beintzat joskorputza itxaldo artu beike, jauparijak, zegalirik daukola, esan-ezik jaunartutia geruagoratuteko.*

Laterano'ko laugarren Batzar nagosijaren agintz au berauxe Trento'ko Batzar nagosijak hariztau eban, doibazkatzen ebazala

jaunartu — comulgau; *kistaŖ* — cristiñau; *obenak* — pekatubak; *autoŖtu* — konbesau; *jaupari* — abade; *oben-nekia* — pekatubakatik ezaŖitako nekia — *Berbizkaldi* — Pazko - aldi; *Joskorputz* — Josu 'ren gorputz; *doibazkatu* — doibatz edo elexatik bota.

agintz aunen kaltez usteko ebenak: *iñok ezeztuko ba-dau gixa-eme kistař oro, adikuntza-urtietara eldu-ondoren, urtian bein, Beřbizkaldijan beintzat, Doibatz, geure Amak agindũ daun lez, jaunařtuteko biařtuta dago-la, doibazkatu beike.*

Laterano ta Trento'ko Batzař nagosijen itxetatik agiri-agiri-da zeintzuk urtietan umiak autořtu ta jaunařtu biař daben. Batzař bijak autořtu ta jaunařtu-biařa adikuntza-urtietara eldu danetik kistařak daukola esan dabe.

Baña jazo zan beste gauzarik askotan be jazo duana. Batzuk lenengoz, ta askok gero uste ixan eben jaunařtzeko urterik geyago biařa zala obenak egin eta jaupari autoř-entzularijari esateko baño; jaunařtzeko adikuntzarik geyago biařa zala, ta umiak ezabela adikuntza ori eukiřen amař, amaika urtietara edo geyagotara eldurařte. Uste onetik umiai kalterik asko eřne yaken; eta kalte gustijok sustařetik ateratiaren, eta umiakan Jaun-goi-ko-mařasuna eraz ixijotiařen, azken-egunotan Ikuřtonatzazko arazodun Batzařak Laterano'ko ta Trento'ko Batzařak agindũ ebena, Doipurubaren agindũz, bařiztau dau.

Oro—gustijak; *Doibatz* — Elexa— *Ikuřton* —sakramentu; *Doipuru* — donien edo kistařen buru, edo Ařa santuba.

II — Adikuntzea.

Umiak, ba, adikuntza-urtietara eltzen diranian jaunařtu biał dabe.

¿Noiz, bańa, umiak, adikuntza-urtietara eltzen dira? Ez beintzat amař, amaika, amabi, ala geyago urte daukezala, sei-saspi-zořtzi urteren aldijan bańo. Augatik umiak jaunařtu biał dabe saspi urtedun mořoskotxubak diralaren onduan. Saspi urtiak bete-orduko adikuntzea ba-dabe, sei ala bost urte daukezala adikuntzea ba-dabe, ordutixek jaunařtuteko białtuta dagoz, ta ordutixek jaunařtuten asi biał dira.

Bańa umiak saspi urte egin dabezala be, ezpa-dira oindińo adikuntzaldira eldu, orduban begira egin biał dabe adikuntzea eukirařte, zořtzi urtetarařte edo adikuntzea ya-tořkien urtetarařte.

Noiz umiak jaunařtu biał daben jakiteko, eta batauxe ařtu biał dogu noiz autořtu biał daben jakiteko be, buru nagosija auxe da: umiak ona ta okeřa zeindutia; au edo beste ori ona dala, ta ona dalako, egin biał dabela; au edo beste ori okeřa dala, ta okeřa dalako, eztabela egin biał ba-dakije, ordubantxe adikuntzaldira eldu dira, ta ordutixek obenak autořtuten eta jaunařtuten asteko

Jaunařtu — komulgau; *autořtu* — konbesau; *zeindu* — au edo beste ori ezagutu; *obenak* — pekatubak.

erean dagoz ta ordutixek be asi biał dabe. Ume batzuk, geyenak, saspı urte daukezala ona ta okeńa zeinduten dabe: orijek, ba, saspı urtedun mońoskotxubak dirala autońtu ta jaunańtu biał dabe.

Beste batzuk auńeratxubaguak dira: sei ala bost urtedun mutilko-neskatuak dirala bai-dakije ona ta okeńa zeinduten: au eztabela egin biał, okeńa dalako; bezte ori bai egin biał dabela, ona dalako. Umetxubok ba, sei ala bost urte bańo eztabezala be, autońtuteko ta jaunańtuteko adikuntzara eldu dira, ta autońtuteko ta jaunańtuteko białtuta dagoz.

Beste batzuk atzeratxubaguak dira: zortzi urte bete dabez, ta eztabe oindińo ona ta okeńa zeinduten. Umetxubok eztira oindińo autońtuteko ta jaunańtuteko biał daben adikuntzara eldu, ta eztagoz oindińo autońtuteko ta jaunańtuteko białtuta.

III. — Gurasuen, jauparijen eta irakaslarijen egin-biańa

Gurasuak, jaupari nagusijak, irakaslarijak eta autoń-entzularijak ańduraz adi biał dabe ija euren ańdurapeko umiak adikuntzaldira eldu diran ala ez. Okeńa ta ona zeinduten dabela adińuzkero, gurasuak, jaupari nago-sijak, autoń-entzularijak eta irakaslarijak

Jaupari-nagusi — abade nagusi; *irakaslari* — maxu.

umetxubok, autořtuteko eta jaunařtuteko geřtuten asi ta ekin biał dabe, eta geřtuta gero, autořtuteko eta jaunařtuteko agindu ta eruan.

Jazo daike umetxubak, onen gastiak dirala, ez eukitia oindiño oben andirik, ezta ija oben txiki agiririk bez. Baña ona da oben-txubok autořtu dagijezala, ta gero jaunařtu dagijela. Baña autořtuteko oben duñik bez autoř-entzulariak eztakusala, jaunařtuteko agindu beikioe, jaunařtuteko geřkunerik onenian dagozalako: oindiño umiak eztaula obenik, auxe da lenengoz jaunařtuteko adi-junerik onena.

II ATZALBURUBA

Umiak autořtuteko ta jaunařtuteko jakin biał dabezan egijak

Ikaskintxarik gitxi da umiak jaunařtuteko jakin biał dabena: jakin biał dabena gustija ementxe itaune-erantzunetan damogu gurasuak eta umien arduradun gustijak eraztuago umiai dirakaskioentzat.

Oben — pekatu; *jaunařtu* — komulgau; *autořtu* — konbesau; *geřkune* — geřtuteko une — *Atzalburuba* — atzalduteko buruba, edo kapitulua; *ikaskintxa* — dotrina; *damogu* — emoten dogu; *dirakaskioentzat* — irakatsi daikioentzat.

I.—Ziñeskayak

I. ¿Zeinbat Jaun-goiko dozak (*donaz*)?

E. Jaun-goiko bat bakañik da.

I. ¿Nor dok (*don*) Jaun-goikua?

E. Jaun-goikua da goiko jauna, aloroduna, ortze edo zero ta ludija, dakuskuzan eta eztakuskuzan gauza gustijak egin dauzana, onai betiko atsedena ta deungiai betiko zigoña emongo dautsezana.

I. ¿Zeinbat notin edo lagun Jaun-goikua'k jaukozak (*jaukonaz*)?

E. Jaun-goikua'k iru notin edo lagun daukaz: Atea, Semia ta Goteuna, edo Espiritu Santuba.

I. Atea Jaun-goikua ete-dok (*don*)?

E. Bai, jauna; Atea Jaun-goikua da.

I. ¿Semia Jaun-goikua ete-dok (*don*)?

E. Bai, jauna; Semia be Jaun-goikua da.

I. ¿Eta Goteuna Jaun-goikua ete-dok (*don*)?

E. Bai, jauna; baña be Goteuna Jaun-goikua da.

I. ¿Ez-ete-dozak (*donaz*), ba, iru Jaun-goiko?

E. Ez, jauna; eztira iru Jaun-goiko, Jaun-goiko bat eta iru notin edo lagun baño.

Aloroduna—gustija al dauna; *ludi*—bixi garan luf au; *Goteuna*—Gogo deuna, edo Espiritu Santuba.

I. ¿Nor ete-dok (*don*) Josu-Kisto?

E. Josu-Kisto da Jaun-goiko-Semia, geure Jauna, Goteun edo Espiritu Santubaren bidez soñtuba, Miren Neskutzagandik jayua, Pontius Pilatus'pian nekautsija, gurutzan josija, ila ta luñalduba: luñaldu zanetik irugañen egunian ilen artetik beñbixija; goira igon zana, bertan Añtearen eskumaldian jezañija, bertotik jasteko bixijak eta ilak azkenaldijan epaikatutiañen.

I. ¿Jaun-goikua'ren eskañaz ilñen diran umiak nora juazak (*juanaz*)?

E. Jaun-goikua'ren eskañaz ilñen diaran umiak donokira edo zerura duaz.

I. ¿Zer ete-dok (*don*) donokija?

E. Donokija da Jaun-goikua ta deunak betiko zoruntsubak diran tokija.

I. ¿Eta oben edo pekatu andijaz ilñen diran umiak nora juazak (*juanaz*)?

E. Oben edo pekatu andijaz ilñen diran umiak gaiztokira edo inbernura duaz.

I. ¿Zer ete-dok (*don*) gaiztokija?

E. Gaiztokija da gaiztuak betiko nekal-dubak diran tokija.

II.—Autoñkintza-gayak

I. ¿Zer ete-dok (*don*) obena edo pekatuba?

Miren Neskutza — Maria Birkiña; *nekautsi* — nekez autsi; *luñaldu* — luñpetu; *beñbixi* — bigañenez bixi edo biztu; *Autoñkintza* — conpesiño.

E. Obena edo pekatuba Jaun-goikua'ri egindako iraña da.

I. ¿Zeinbatarikua dok (*don*) obena?

E. Obena bitarikua da: andija edo ilgoía, ta txikija edo ez-ilgoía.

I. ¿Zer ete-dok (*don*) oben andija?

E. Oben andija da Jaun-goikua'ren arerijo ta gaiztoki edo inbernuko zigoíaren eíudun gagixan obena.

I. Eta ¿zer ete-dok (*don*) oben txikija?

E. Oben txikija da Jaun-goikua'ren aizkidasuna epeldu ta zigoí amaikoíaren eíudun gagixan obena, ez baña Jaungoikua'ren arerijo ta gaiztoki edo inbernuko zigoíaren eíudun.

I. ¿Zeinbatetara oben andijak azkesten edo parketan dozak (*donaz*)?

E. Oben andijak bitara azkesten edo parketan dira: garbai nagusijaz ta autoírkintza edo konbesiñuaz.

I. ¿Zer ete-dok (*don*) autoírkintzea edo konbesiñua?

E. Autoírkintzea edo konbesiñua autoírentzularijaren azkitz edo asoluziñuaz obenak azkesten edo parketan dauskuzan ikuíton edo sakramentuba da.

I. ¿Zeinbat gauza bíaíak ete-dozak (*donaz*) ondo autoírtuteko?

azketsi — parkatu; *garbai* — damu, *ikuíton* — sakramentu.

E. Ondo autořtuteko iru gauza birařak dira: autořa, gařbaya ta erabakija.

I. ¿Zer ete-dok (*don*) autořa?

E. Autořa da autoř-entzularijari norberaren obenak esatia.

I. ¿Zeintzuk oben esan birař ete dautsozak (*dautsonaz*) autoř-entzularijari?

E. Birař-birařezkua da oben andi baři gustijak autoř-entzularijari esatia: au da: iřoiz esan etxakozan edo azkitzaz azketsi edo parkatu eztiran oben gustijak, batez bere azkenengo autořkintzatik onakuak. Oben txikijak eta lenago autořtu diran oben andijak esatia ezta birařezkua, ona da bařa.

I. Eta oben andi baři gustijak esateko ¿zer egingo dok (*don*)?

E. Oben andi baři gustijak autoř-entzularijari esateko lenago buruba azteřtuko dot, zeintzuk oben eta zeinbat bidař egin dodazan agintzarik-agintza gogoratuten dodala.

I. Oben andiren bat bilđurařen ala lotsařen esan ezik ¿zer ete-dagik (*dagin*)?

E. Oben andi bařija bilđurařen ala lotsařen eztiřuanak beste oben andi baři bat dagi, ta ganez etxako obenik bapez azkesten edo parketan.

I. ¿Zer ete-dok (*don*) gařbaya?

autořa—conbesiřua; *askitza*—azkesten daun itxa edo asoluziřua; *oben*—pekatu; *autořkintza*—conbesiřo; *autořtu*—conbesau.

E. Gaíbaya da Jaun-goikua'ri obenakaz egindako irañaren gogo-ala edo miña.

I. ¿Zeinbatarikua dok (*don*) gaíbaya?

E. Gaíbaya bitarikua da, bata nagosija ta txikaía bestia.

I. ¿Zer ete-dok (*don*) gaíbai nagosija?

E. Gaíbai nagosija da Jaun-goikua iraindubaren gaíbaya, Jaun-goikua dan on ta andija dalako.

I. ¿Eta zer ete-dok (*don*) gaíbai txikaía?

E. Gaíbai txikaía da Jaun-goikua iraindubaren gaíbaya, ez Jaun-goikua dan on ta andija dalako, Jaun-goikuak abindu dauskuzan onak galdu ta Bera'k zematuriko zigor'en erudun geure burubak egin doguzalako baño.

I. Donoki edo zeruko atsedena galdu ta gaiztoki edo inbernuko suba ibazi jualako (*jonalako*) gaíbai-duanaren gaíbaya ¿zelangua dok (*don*)?

E. Donoki edo zeruko atsedena galdu ta gaiztoki edo inbernuko suba ibazi daulako gaíbai danaren gaíbaya gaíbai txikaía da.

I. ¿Zer yagik (*yagin*) gaíbai nagosijak?

E. Gaíbai nagosijak bat-baten eta autorkintzea edo konbesiñua egin-orduko obenak azketsi edo parkatu ta Jaun-goikua'ren aizkide bigurtuten gauz.

abindu—agindu, edo prometidu.

I. ¿Berorixe ete-yagik (*yagin*) garbai txikakak be?

E. Ez, jauna: garbai txikakak eztauskuz obenak azkesten edo parketan eta ezkauz Jaun-goikua'ren aizkide autořkintzea edo konbesiñorik baga egiten; baña autořkintzeaz baten bai-dauskuz obenak azkesten edo parketan, baña be Jaun-goikua'ren aizkide bigurtzen gauz.

I. Eta ez garbai nagosi ez txikakak yuala (*yonala*) autořtzen yuanak (*yonanak*) ¿zer ete-yagik (*yagin*)?

E. Oben edo pekatubak garbai nagosi ta txikak-barik autořtzen dauzanak, oben edo pekatu andi barija dagi, ta etxakoz oben zakak azkesten edo parketan.

I. ¿Zer ete-dok (*don*) erabakija?

E. Erabakija da obenik auferantzian ezegiteko asmo sendua.

I. ¿Zer egin biar dok (*don*) autořtuta gero?

E. Autořtuta gero autoř-entzularijak ezarřitako oben-nekia zintzoro bete biar da.

III.—Jaunartza-gayak

I. ¿Ogi deunan nor ete-yagok (*yagon*)?

E. Ogi deunan Josu-Kisto bera, Jaungoiko Ařearen eskumaldian dazarřana dago.

Jaunartza — komuniño; *Ogi deun* — ogi santu, edo ostia consagrada; *dazarřana*—yezarřten dana.

I. ¿Ez ete dok (*don*), ba, ogija, ogi deuna?

E. Ez, jauna: jaupari edo abadiak itz deunak esan-auferko ogi deuna bai-zan, ziñez, ogija, edontziko ardua bai-zan lez ardau-ardaua; baña jaupari edo abadiak itz deunak esan-da-batez, ogija Josu-Kisto'ren gorputza biguritu da, ta ardua Josu-Kisto'ren odola egin da.

I. ¿Jaunaítzen duanian (*donanian*) ba, zer aítzen ete-dok (*don*)? ¿Ogija ala Josu-Kisto'ren gorputza?

E. Jaunaítzen dodanian eztot ogija aítzen, ezta jaten, bai baña Josu-Kisto'ren gorputza aítzen eta jaten dot.

I. ¿Jaunaítu gura ete-dok (*don*)?

E. Bai, jauna: gogo-gogua daukat jaunaítuteko.

I. ¿Zegaítik eta zetako?

E. Ona ixateko, Josu-Kisto'rekin batuteko, ta Josu-Kisto'k donoki edo zerura naruantzako.

I. ¿Zer bíaía ete-dok (*don*) jaunaítzeko?

E. Iru gauza bíaíak dodaz jaunaítzeko: lenengua, oben andirik ez eukiña; bigaíena, gogo onaz jaunaítuten uferatzia; ta irugaíena, erijotz-aldijan ala ilabete ta luziagoko makalaldijan eztala, barurik jaunaítzia.

jaupari—abade; *itz*—berba; *edontzi*—edateko ontzi, edo kalixa; *ziñez*—egijaz; *jaunaítu*—komulgau.

I. Oben edo pekatu andirik ba-daukok (*daukon*), ¿jaunaítuteko, zer egingo ete-dok (*don*)?

E. Oben edo pekatu andirik eukizkero, jaunaítu-auferko autoí-entzularijari gaíbai andijaz autoítuko dautsat, autoí-entzulariak azketsi edo parkatu daidantzat.

I. ¿Zer esan gura ete-dok (*don*) jaunaítuten gogo onaz uferatu biaí azala diñuala (*diñonala*)?

E. Jaunaítuten gogo onaz uferatu biaí nazala diñodala, ona ixateko ta Jaun-goikua' rekin batuteko goguz jaunaítuten uferatu biaí nazala esan gura dot.

I. Eta ¿zer esan gura dok (*don*) barurik jaunaítu biaí duala (*donala*) diñuala (*diñonala*)?

E. Barurik jaunaítu biaí dodala diñodala, eztodala biaí pizkarik bez jan ez edan ga-berditik jaunaítu-osteraño esan gura dot.

I. ¿Noxian-bein jaunaítu biaí yoguk (*yogun*)?

E. Oben andiren erudun burubak ez egi-teko urtian bein, Berbizkaldijan beintzat, jaunaítu biaí dogu; baña onak eta obiak ixateko, egunian-egunian, al badogu, jaunaítu biaí dogu, Josu-Kisto'k gura daun lez.

III ATZALBURUBA

Autořkintza-erea

Umia, autořtuteko txadonera jun danian, Josu-Kisto gurutzabaren aurian belaunbikotuko da, ta esango dau buruba gurutzetan daula:

Kurutze santiaren † agirijekařik geure † arerijuetatik aldendu gaxuz † geure Jauna ta Jaun-goikua: Ařiaren, eta Semiaren, † eta Espiritu Santubaren ixenian. Amen. (1)

Gero esango dau:

Ni pekatarija konbesetan natxako Jaungoiko gustija dayanari, Andra Marija Birkiņa zori-onekuari, San Miguel aingerubari, San Juan Bautistiari, Apostolu Santu San Pedro ta San Paulori, ta ostian zeruban dirian santu gustijai, eta zuri, neure arimako (?) Ařa, egin dodala pekatu, goguaz, berbiaz, obriaz, neure eruz, neure eruz, neure eru andiz. Oreğarik eskatuten dautsat Andra Marija Birkiņa zori-onekuari, San Miguel aingerubari,

(1) Euzkera garbiz esan gura dabenentzako:

Gurutze deunaren † ikuřařen geure † arerijuetzaz jabon gaikezuz, † geure Jaun eta Jaun-goikuorik. Ařearen, eta Semiaren †, eta Goteunären ixenaz: Olantxe.

San Juan Bautistari, Apostolu Santu San Pedrori ta San Paulori, ta ostian zeruban dirian Santu gustijai, eta zuri, neure arimako (?) Aġa, eġegutu deyozula geure Jaun eta Jaun-goikua'ri. Amen. (1)

Gero obenak ezauteko argija ta euraen garbaya jaristeko, esango dau:

Aġa guria, zerubetan zagozana: santipikadu bedi zure ixena; betoġ gugana zure eġe-ñuba; egin bedi zure borondatia, zelan zeruban alan luġian. Egunian eguniango geure ogija emon eiguzu; eta parkatu eiguzuz geure zoġak geuk geure zoġdunai parketan dautseguzan legez; eta itxi ez eiguzu esetsijan jausten; baña aldendu gaxuz gatxetik. Amen.

Abe, Marija, grazijaz betia; jauna da zugaz; bedeinkatia zara zu andra gustijen artian, eta bedeinkatuba da zeure sabeleko prutuba, Jesus. Santa Marija, Jaun goikua'ren

(1) Euzkera garbiz esan gura dabenentzako:

Nik obendijok autoġtzen dautsat Jaun-goiko alorodunari, Miren beti Neskutz deunari, Mikel gongotzon deunari, Jon Ugutzari deunari, Kepa ta Paul Beldu deunai, deun gustijai, baña zeuri be, neuri Aba oġi, obenik lafegi egin dodala ustez, itxez ta eġitez, neure eġuz, neure eġuz, neure eġu-eġuz; augaġik eskatzen dagitsat Miren beti Neskutz deunari, Mikel gongotzon deunari, Jon Ugutzari deunari Kepa, ta Paul Beldu deunai, deun gustijai, baña zeuri be, neure Aba oġi, Jaun-goiko geure Jaunari neure aldez otoi-dagijozubela.

Ama, eřegutu egixu gu pekatarijokařik, orain ta geure erijotzako orduban. Amen.

Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto. Sicut erat in principio, et nunc, et semper, et in sæcula sæculorum. Amen. (1)

Gero agintzarik-agintza egin dauzan obena, gogoratuko dauz.

Lenengo agintza. -- *Jaungoikua gauza gustijak bařo mařiagotia.* Eztarue obenik egiten; bařa otoi-egiten ekandu-erazoteko, ona litxateke autoř-entzularijak otoirik egin dabenentz gabaz oeratzian eta goxez oetik jagitian itandu dagijela.

Bigarrena.—*Jaun-goikua'ren ixena alperik*

(1) Euzkera garbiz esan gura dabenentzako:

Geure Ařa Goikua, zeure ixena donetsi bedi; zeure ala bel; zeure gurea egin bedi donokijan lez ludijan be. Emoguzu gauř be geuretzako ogi egunokua; azketsi geuri geure zofa, geuk be geure zofdunena dazketsegun lez; ta ziltxaldijan ezkagixuz itxi, gaxetik jaban bařo: Olantxe.

Aguř, Miren, eskařez betia; zeukin Jauna; donetsija zeu emakumien ařtian, eta donetsija zeure sabelak softuba, Josu. Miren deuna, Jaunguaren Ama: geu obendijuen alde z otoi-egixu orain eta geure erijotzaldijan: Olantxe.

Aintza Ařeari, ta Semiari, ta Goteunari. Len lez, orain, beti ta amaibako egunetan: Olantxe.

ez-ártutia. Birauak; itz gaiztuak; ziñak, esateko, gurutz au legez.

Irugařena. — *Jai-egunak donetutia*. Jaupea edo mezea jai-egunan ez-entzutia; txadonan itz-egit̃ia, geldi ta itxaltsu ez-egotia; okela ta ařaikija baru-egunetan nastautia.

Laugařena. — *Gurasuai lotsa-ixatia*.

Gurasuai ezetz-esatia: euraen agintzak ez egiztia, ala berandu ta atsekabez egiztia; agura-atsuai ta txiro edo eskekuai iři ta iña-ka-egit̃ia.

Boskařena. — *Iñor ez-eraildia*. Neba-ařebakin eta lagunakin aseřetutia: ařijak iñori botatia; iñor jotia; bekatxa ixatia.

Seigařena. — *Loikeririk ez-egitia*. (Batzuk ezkatije zer dan: Jaun-goikua'k betiko aune-lan jabongo al-ba-leukez; baña askok baidarue jakin: autoř-entzularijak ařduraz itandu beikiue, batez be umetxubak lotsařen autoř-kintxa txar̃ik ez egiteko). Uste, itz ta egiñen loyak.

Saspigařena. — *Ez-ostutia*. Ezer ostutia.

Zortzigařena. — *Guzuřezko ziñaltzarik edo testimoniorik iñori ez-ezart̃ia, ezta guzuřik esatia*. Guzuřak esatia.

ziña—juramentuba; *Jaupea*—mezea; *Txadona*—elixia; *ařaikija* — ařain-jakija; *autorkintza* — konbesiño; *ziñaltza* — testimonijua.

Bederatzigarāen eta **amargarāen** agintzak seigarāenan eta saspigarāenan sartzen dira.

Umiak, agintzarik-agintza egin dauzan obenak gomuta dauzala, garbaya ta erabakija eratu biar dauz. Onetarako gomuta beike Jaun-goiko ona, geure Atea, obenakaz iraindu daula, Josu-Kisto gurutzian josi daula, gaiztokiko suba ta Jaun-goikuaren beste zigorak ibazi dauzala; eta gero obenatzaz gorbai dala ta bariro ezegiteko asmo sendua daukola, esango dau:

Neure Jesukisto Jauna, Jaun-goiko ta gixon egijazkua, neure egilia ta erdentoria, zariana zarialako ta mate-zatudalako gauza gustijen ganian damu-dot, Jauna damu dot bijotz gustitik zu opendiduba, gogo sendo bategaz ez geyago pekaturik egiteko, pekatuben bide gustijetatik alde-egiteko, neure pekatubak autoirtuteko, ta egiteko emoten jatan penitentzija. Opa dautzudaz, Jauna, neure bixitxa, neke ta egite gustijak neure pekatuben orderako; uste dot zeure ontasun ta eruki amaibagan parkatuko daustazuzala zeure odol prezioso, nekaldi eta eriotzagatik emongo daustazula grazija bixitxia obatute-

oben — pekatu; *gaiztoki* — inbernu,

ko ta zeu serbietan irauteko neure erijotzako orduraño. Amen. (1)

Gero umiak autoř-entzularijari bere obenak zintzoro ta egijaz esango dautsoz, eta autoř-entzularijaren uarřak eta aunek ezařitako oben- nekia gogoz artuko dauz ta egizten ekingo dau.

Autoř-entzularijak oben-azkitza diñotsola, umiak, belaunbiko, esango dau:

Neure Jesukisto jauna, edo
Aguř, Josu-Kisto, neure Jaunori...

Gero Josu - Kisto gurutzabaren auřera

(1) Aguř, Josu-Kisto, neure Jaunori, egijazko Jaungoiko ta gixonoi, neure Irazale, Aba ta Eroslioř; Zeu'ri ziñesten dautzut; Zeu'tzaz nitxaro; Zeu gauza gustijak baño mañago zaut; gařbai-naz bijotz bijotzez Zeu iraindubaz Zeu zaran on utza zaralako; bařa be gařbai-naz gaiztokiko neke betikořakaz nekaldunaikezulako; darabagit sendoro auřerantzian obenik ez-egiteko, Zeu irainduteko zorijetatik igesteko, autořtuteko ta ezařiko yatan oben-nekia egizteko.

Neure bixitz au, egiñen eta neke gustijak daskintzudaz neure oben gustijen ordeř; eta ezkatzen dautzudan lez, bai-ditxarot be Zeu zaran on eta eřukijor ořek azketsiko daustazuzala Zeure odol edeř, neke ta erijotzaren ibazikajaren, eta zuzendu-bidia, ta Zeu'ri erijotzařteraño jopu-egitia emongo daustazuzala: Olantxe.

Oben-azkitza — pekatu - asoluziñua; *oben* — pekatu.

jungo da, ta bertan belaunbikoturik, esango dau:

Aguí, Josu-Kisto, Neure Jaun-goikuoí, eskañik asko dagitzut Zeure eskaña emon daustazulako neure obenak gañbayaz ta auferantzian ez berregiteko asmo senduaz autoñtuteko, baña be Zeure eskañ deunaz nire oben gustijak azketsi edo parkatu daustazulako. Jaunori, Zeu zara on utza niretzat; Zeu'k irazan, irauki eta erosi nozu; Zeu'k egin dautzudazan irain gustijak azketsi daustazuz; Zeuk donoki edo zeruko atsedena abindu ta emon gura daustazu ta nik neure obenakaz ibazi dodan gaiztoki edo inbernuko suba azketsi daustazu; gañbai-naz atzeraldijan Zeu iraindubaz; mañe-zaut bijotz-bijotzez, eta zeure eskañ deunak nuñgazala, eztot auferantzian obenik egingo.

Miren deunoi, Jaun-goikua'ren Ameori, ta neuriori: añen, jadetsi neuri Zeure Seme maña eztaidala auferantzian iraindu.

Jaun-goikua'ren gotzon edo aingeru neure Zaindajariori ta neure zaindari danorijek, añen, jadetsi Jaun-goikua eztaidala auferantzian iraindu: Olantxe.

Gero umiak egiztuko dau autoñ-entzulari-jak ezarñtako oben-nekia.

beregin — bañiro egin; *asketsi* — parkatu; *irazan* — ixan-erazo; *abindu* — agindu; *nuñgazala* — uñgazten edo laguntzen naula.

IV ATZALBURUBA

Jaunaítza - erea

*Jaunaítu-auíeko geítuko dok eure bijotza,
ta esango dok.*

Jaunartu - auíeko otoyá

¿Zer egingo dot orain? Jaunaítuko dot: Josu-Kisto, neure Jauna, neu irazan eta erosi nauna, neu maítiaíren gurutzian il zana, aítun eta jango dot orain. Nik egunian-egunian ogija ta beste jakirik asko jaten dodaz; egunian-egunian ura edaten dot; ogirik edo beste jakirik ezpa'neuke nik egun baten jango, gosiak ildén nengoke; urik ezpa'neuke egun baten edango, egaíjak ildén nengoke; augaítik egunian-egunian jaten eta edaten dot, gosiak eta egaíjak enagijentzat il, bai baña, janaz ta edanaz alikatuten nazala, azi ta andija egin nadintzat. Bai-ekijan Josu-Kisto'k nire goguau be gose dala; bai-ekijan Josu-Kisto'k nire goguau be egaí dala; ta nire gogo au gosiak eta egaíjak il. ezegijentzat, Bere gorputza ogi-pizkapan ostendu eban, eta niri goguaren jakitzat emon eustan; Bere odola arda-pizkapan ostendu eban, eta

atzalburu — kapitulu; *irazan* — ixan-erazo; — *alikatut* — jakijaz azi.

niri edakitzat emon eustan. ¡O Josu-Kisto on mañe ori! Nik egunian-egunian jaten dot ogija ta edaten dot ura. Beraulan be, Zeure Gorputz ori jan gura dot neure gogo au alikatu daidantzat, eta Zeure odol deun ori edan gura dot neure gogo aunen egañija asebete daidanzat. ¡O Josu-Kisto! Ni enaz iñor Zeure gorputz ori jateko ta Zeure odol ori edateko; baña Zeu zara onegija, Zeu zara on utza niretzat, eta Zeu'k gura ixan dozu neure gogo au Zeu'kin batu, Zeu'k gura ixan dozu Zeure duin eztan umetxu onen bijotz au Zeure duin egin; eta Zeure duin egiteko, nire jakija egin zara. ¡O Josu-Kisto! ¡etori nigana! ¡erdu nigana! Zeu jateko gogo andija daukat; Zeu'kin bat egiteko guraritsu-guraritsu nago: nigana etori; nigana erdu; Zeu'kin bat nagikezu emen beyan, Zeu'kin bat ixateko goyan, donokijan, amaibako egunetan: Olantxe.

Miren deun, Josu-Kisto'ren Ama ori: ¡Zeu ixan ziñan zorunsuba Josu-Kisto zeure sabelian sortu zebanian! ¡Neugana be Josu-Kisto'k etori gura dau!: geñtu añen, neure bijotz au Josu-Kisto ondotxu añtu daidantzat.

*Gero esango dok Geure Aña goikua...
Aguñ, Miren... eta Aintza, eta jaunartuteko
begira egin biar duanartian Josu-Kisto'kin*

donoki — zeru; *zoruntsu* — zori-oneko.

*batuteko gogo, gurari ta sukar andija bijo-
tzan irauten ekin biariko dok.*

*Aldija dala, jaunañtuteko lekura uñeratuko
az, buruba eta begijak iñora aldetuteka
Jauna'gana zuzentzen duazala; belaunbikotu-
ko az, eta jaupari edo abadiak ogi deuna
atzakaz daukola, esango dok irutan:*

Jaun ori, ni enaz Zeu añtzeke duña; itz bat
bakañik Zeu'k esan, eta neure gogo au osa-
tuko dozu.

*Gero oyal zurija, dagolarik, eskubakaz
añtu ta jasoko dok okozpian iminñen duala;
ta jaupari edo abadiak ogi deuna jazoten
daula, euk begiratuko dok eta abua zabaldu-
ko dok miña beko ezpanerañte luzatzen duala;
añtuko dok ogi deuna, eta txistubaz bigun-
duta gero, iruntsiko dok. Eure lekura begi
beñijak duazala jungo az ta antxe esan go
dautsak Jaunari:*

Jaunañtu-osteko otoyá

Aguñ Josu-Kisto, neuri Jaun ori: ziñesten
dot Zeu zarala gixona: ziñesten dot gixa-
emiak erostiañen gurutzan zeure odola ixuri
zebala ta il ziñala; ziñesten dot beñbixi ziña-
la, donoki edo zerura igon ziñala, Jaun-go-
ko Atearen eskumaldian zezañala ta bertatik
bixijak eta ilak epaikatzeke jatsiko zarala.

beñbixi—biztu;—*zezañala*—jezañten zarala.

Ziñesten dot Zeu'k egija utz ořek ageřtu dauskuzuna eta Doibatz edo Elexa geure Ameak darakaskun gustija; eta gauř daukadan ziñezmen au beti euki gura dot, geřturik, Zeu'k gurazkero, ziñesmen aunen aldez neure odola ixurteko.

Aguř, Josu-Kisto, neure Jaun ori: Zeu'tzaz nitxaro, Zeu neure eroslia ta gaizkatzalia zaralako; Zeu'tzaz nitxaro, Zeu'k ibazi daustazulako nik bialř dodan eskařa; Zeu'k eskař au emongo daustazula ditxarot; Zeu'k zabaldu daustazuz donoki edo zeruko atiak eta Zeu'k nire erijotzaldijan zabalduko daustazuzala ta donokijan ařtuko nozula ditxarot: ařen, Zeure eskařa bixi nazanařtian emoskedazu, neuk be, Zeure eskařoři nařaikijola, donokiko atsegiņa irabazi daidantzat. Uste ta itxarokintza au beti nire bijotz onetan iraukezu, ařen.

Aguř, Josu-Kisto, neure Jaun ori: nik mařezaut bijotz-bijotzez; nik mařezaut Zeu on utza zaralako; nik mařezaut irazan nozulako; mařezaut irauten nozulako; mařezaut Zeure odol ori gurutzan ixurijaz erosi nozulako; mařezaut donokijan betiko zorontsuba egin gura nozulako; mařezaut neure jakija ta neure edakija egin zaralako; mařezaut gauř ařtu ta jan zaudalako, eta eskatzen dauzut bigař

ta egun gustijetan Zeu artuteko eskaña, batez-be neure erijotzaldijan Zeure gorputzaz neure goguan alikatuteko: Olantxe.

Aguñ, Josu-Kisto, neure Jaun ori; atzeraldiko obenakaz iraindu zaut; garbai naz, eta obenik txikarena bez auferantzian ezegiteko asmo sendua daukat: Zeu'k zeure eskañaz urgazi, inoiz bez etzaidantzat iraindu: Olantxe.

Eskar-otoya

Eskarrik asko Zeu'ri, Jaun deun, Aba alorodun, Jaun-goiko betikoñ ori, ni obendijau, ez neuk ibazita, Zeu'k erukijon utz orok egin daño, asebeste nozulako Zeure Seme ta geure Jaun Josu-Kisto'ren gorputz ta odol deunaz. Otoi-dagitzut egin dodan jaunartza au eztaidala ixan neke-eruduna, bai baña azketsarako bide onurakoña: zinesmen-izkiluba ta guramen onezko ikuñdija ixan bekit; neure obenak utsitu beidaz; naikunde oker ta nabarkeriak amatu beidaz; matasuna ta eruatasuna, txikartasuna ta noskuretasuna ta ekandun gustijak gurendu beidaz; arerijo agiri ta eskutau gustijatzaz aldeztu nate; igikada aragikoñ ta gogakoñak kitatu beidaz;

aba alodorun—ata gustijaldun;—*obendi*—pekatari; *jaunartza*—komuniño; *azketsa*—parkamen; *izkilu*—arma; *ikuñdi*—eskudu; *noskuretasun* (nagusi-gura-egin-tasun)—obedientzija; *ekandun*—birtute.

Zeu, Jaun-goiko bakañ ta egijazko oñekin batu nañe, ta neure guena bete begit. Otoidagitzut, añen, neu obendijau naruazula Zeure bazkari andira, Zeure Seme ta Goteunarekin argi edeña, ase osua, pozor betikoña, atsegin betia ta zorun-zoruna zaran bazkarira: Josu-Kisto geure Jaun berorijañen: Olantxe.

Orain bial duazan eskañ gustijak eskatuko dautsozak Josu-Kisto'ri, bai euretzañ, bai guraso ta neba-arebaentzañ eta aide gustijentzañ, Doipuru deunarentzañ, aizkide ta mañe gustijentzañ, aberijarentzañ, Garbiñekuko gokaxuentzañ, il-agiñian dagozanentzañ, obendijentzañ eta bialtu gustijentzañ.

Gero Josu-Kisto'ren bost zaurijak guñ-egin-go dozak, diñuala.

Josu-Kisto'ren bost Zaurijai agurañ

I. Agurañ, Josu-Kisto: Zeure eskeñ-oñeko zauri deuna guñ ta mun-dagit, eta beraz ixuri zeban odolarañen, aldendu nagixu, añen, obenbide okeñetatik.

Geure Aña; Agurañ, Miren; eta Aintza...

II. Agurañ, Josu-Kisto: Zeure eskuma-oñeko zauri deuna guñ ta mun-dagit, eta bertaz

pozor—poz andija; *zorun*—zorion.

ixuri zeban odolañen, zeure agintza-bidez zuzendu eidazuz beti nire oñak.

Geure Añā; Agur, Miren; Aintza...

-III. Agur, Josu-Kisto: Zeure eskeñeko zauri deuna gur ta mun-dagit; bertaz ixuri zeban odolañen, eutsi niri, añen, eta ez-itxi egundo Zeu'gandik aldenduten.

Geure Añā; Agur, Miren; Aintza...

IV. Agur, Josu-Kisto: Zeure eskumako zauri deuna gur ta mun-dagit; bertaz ixuri zeban odolañen, esku-zabalaz neu onetsi ta Zeure zainbian neu euki.

Zeure Añā; Agur, Miren; Aintza...

V. Agur, Josu-Kisto: Zeure alboko zauri deuna gur ta mun-dagit; bertaz ixuri zeban odolañen, Zeure Bijotz-baruban jabon nagixu beti, eta Zeure Bijotzeko sukañaz nire bijotz au ere ta kiskaldu egixu.

Geure Añā; Agur, Miren; Aintza...

Josu-Kisto'ri añentzak

Kisto'ren goguori, neu donetu.

Kisto'ren gorputzoi, neu gaizkatu.

Kisto'ren odoloi, neu asebete.

Kisto'ren albo-uroi, neu garbitu.

Kisto'ren nekaustioi, neu sendatu.

O Josu onori, neuri entzun.
Zeure zaurijetan neu eskutau.
Zeu'gandik alde-egiten ez laketu.
Arerijo gaiztuatzaz neu aldeztu.
Erijotzaldijan dei-egin neuri
Ta Zeu'gana elduteko Zeu'k agindu,
Zeure deunakin Zu neuk goresteko
Amaibako egunetan: Olantxe.

Josu-Kisto gurutzabaren aurian esateko otoa

Ona neu, o Josu on eta gozuori, Zeure aurian belaunbikotzen nazala, eta gogo bixijaz eska ta aŕen-dagitzut ziñestasun, itxarotasun eta maŕtasun-sukaŕ bixijak, obenen gaŕbai andija ta auferantzian ez-egiteko erabaki sendua neure bijotz onetan irafi dagixuzala, gogo andi ta min garatzaz zeure bost zaurijak gogoratzen eta oldozten dodazala, batez-be begiz joten Dabi iragaŕlak Zeu'tzazko, o Josu on ori, esan ebanau: *Neure esku-bak eta neure oñak zulatu ta neure azuŕ gustijak zenbatu egin dabez.*

Geure Aŕa, Goikua; Aguŕ Miren ta Aintza... *esango dok nekazka osua irabazteko.*

Egunian - eguniango jaunaŕtzearen alde z otoa.

¡O Josu gozo-gozuori! Zeu ludira jatsi ziñan gogo gustijai Zeure eskaŕezko bixitxa

aŕentzak — oraziñuak; *gaizkatu* — gatxetik azkatu; *nekauste* — pasiñu; *irafi* — aŕtu-erazo, inprimidu; *nekazka (neke-azkatza)* — parkamen.

irauki ta elikatutiaren, eta eurek egunian-egunian dabezan makal-utsentzako egunian-eguniango osakija ta egunian-eguniango alikaturea ixan gura ziñan. Apal-apalik otoi-dagitzugu Zeu'k, gixa-emiakanako Bijotz mateko' orijaren, gustijai Zeure Jaun-goikozko gogua zabaldu dayuezula, oben andipian zorigatxez datzazanak galdu daben eskaezko bixitxa bañiro, Zeu'gana bigurturik, jaritxi dagijentzat, eta Jaun-goikozko bixitz aunetan, Zeure eska'ak eginda, bixi diranak Zeure mai deunera egunian-egunian, al badabe, ureratu datezantzat, aunelan egunian-egunian jaunartzen dabela, baña be artu dagijela egunian-egunian oben txikijen osakija, eta Zeure eskaezko bixitxa alikatu-tuten dabela ta batez euren goguak garbijagotuten dabezala, jaritxi dagijentzat azkenez Zeu'kin dan bixitz zoruntzuba: Olantxe.

Irureun eguneko nekazkea egunian, ta ilabetian bein nekazka osua, auto'rtu ta jaunartuzkero.

irauki — euki erazo.




BILABIDIA

I Atz.— <i>Noiz umiak autořtu ta jaunařtu biař daben</i>	3
I. Doibatzak aginduba	3
II. Adikuntzea	5
III. Gurasuen, jauparijen eta irakas- larijen egin-biařa.	6
II Atz.— <i>Umiak autořtuteko ta jaunařtu- teko jakin biař dabezan egijak.</i>	7
I. Ziņeskayak	8
II. Autořkintza-gayak.	9
III. Jaunařtza-gayak	13
III Atz.— <i>Autořkintza-erea</i>	16
IV Atz.— <i>Jaunařtza -erea</i>	23

Salgei dago.—BILBAO'n:

Elexpuru Anaya' enean eta **Euzkadi' ko**
idaztitegirik nagusijetan:

Ijeki bat	0,10	lar.
400 ijeki	8,00	»
500 »	35,00	»



20